



ATEA ITXI AURRETIK

Jon Ander Urkiaga Egidazu



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ATEA ITXI AURRETIK

Jon Ander Urkiaga Egidazu

“Nire poesia oso merkea da herriaren ahotik hartu nuen
debalde eta debalde ematen diot herriaren belarriari”

Gabriel Aresti

Lau nahi zaitut lau. Olerki lerro bakarraren antzera lau.

Nahi zaitut lau.

Urte luzetan jardun zitzaion deika,
etxeko telefono beretik, egun eta ordu berdinetan.
bestaldeko telefonoak deia ematen zuen arren,
ez zuen inoiz hartu.

Damutu zenean bere anaiordea behar lukeenak erantzun zion:
–Hiru hilabete dira zendu zena.

Hala zen,
han zegoen,
hemerroteketan hautsa hartzen,
izen-abizen arrotzegiez inguraturik.
Zoriontsua izan zen,
gurutzeen ondoko azken argazkian ere.

Laket dut euriaren hotsa
udako asfalto beroaren kontra talka egitean.
Laket norabide gabeko autoek
putzu inprobisatuetan sortzen duten melodia.
Zoragarria da haurren negar-zotin arranguratsua
beraien txikitasunaren indar guztiz dihardutenean,
zoragarria den bezala urteko egun galduren batean
nagitasunaren nagitasunez aharrausi egitea.

Baina, zoritxarrez gaur ez da uda,
oskarbi dago zerua, eta autoak erregairik gabe geratu dira.
Haurrak fresa zaporeko gozokiak miazkatzen dabilta,
eta nik,
desira eskuragaitzen kontura izkiriitzen segi nahi dut.

Jo dezagun autobus geltokian zaudela,
eta guardasolak ez zaituela euri tantengandik babesten.

Jo dezagun gabardina handi baten barruan
galdurik zaudela,
eta autobusak etorri bezala doazela,
baina, zurea ez dela inoiz heltzen.

Jo dezagun alferrik dela erlojuaren orratzei
behin eta berriz begiratzea,
segundoek ihes egin behar baldin badute
ihes egingo dutelako.

Eta zu ez zara inor horri aurre egiteko.

Eta antzuak dira mugikorra poltsikotik
ateratako aldi guztiak,
alferrik geltoki ondoko kafetegian
harturiko kafeak...

Orduan, egunkaria hartu duzu, eta
eskelen orrialdea zabaltzerakoan iruditu
zaizu zeurea dela bertako aurpegi zurbilen arteko bat.
Lasterka irten zara kafetegitik, eta
demagun une horretan itxaroten zenbiltzan autobusak
ateak zabalik dituela, zure zain;
eta demagun ez dela euririk; areago,
eguzkiak gozoki egiten du dir-dir,
eta erlojuko segundoen orratza ez doa aurrera,
ez duzulako denboraren beharrik.

Demagun munduko denbora eta
autobus geltoki guztiak zureak direla.

Kaixo, aspaldiko.

Bai, badakit berandu dela,

baina, beranduegi izango ez delako esperantzan idazten dizut.

Egia esan, lehenago ere sarri idatzi izan dizut,

baina...

Badakizu, lotsak eraginda edo...

Ez litzateke xamurra izango berriz ere zure ahotsa entzutea,

gero zure begi oskarbiekin akordatuko nintzatekeelako

ondoren, begi horiekin aspaldian lurperatutako

makina bat paradisu ikusiko nituelakoan.

Eta ez dut nahi.

Ez da erraza, urte pare bat izango dira,

nahiz eta, hogeit hamar igaro izan diren iruditu.

Eta bakardadeak beldur dio neguari,

elurrari, hotzari, euriari...

Bakardadeak ikara dio baita bakarrik egoteari;

nik oroimenari diodan moduan,

nor ginen ezin oroitzeari.

Batzuetan iruditzen zait harri hotz horrek

ez duela izen-abizenik, ez iraungitze datarik, ez lorerik...

Eta orduan, ea inoiz ezagutu izan zintudan

galdetzen diot nire buruari.

Zimeldurik daude loreak,

udazkeneko haize erre honek ez die mesederik egiten.

Baina, garai haietan, haizearen erruz begietara zerbait sartzen zitzaizunean

laguntzeko eskatzen zenidan...

Zuregana gerturatu,
fereka disimulatuen lurraldean barneratu
eta haize xirimola bat bailitzan
zure arnasa sentitzen nuen
nire aurpegiaren kontra talka egiten.
Eta udazkena da gaur;
eta mendebaldeko haizea dabil;
eta etxerako bidean, Kalaia kaletik gora
gure azken aberria bisitatuko dut.
Gaur ez dizkizut loreak ekarri,
baina, hitz hauek zuretzat dira.
Ziurrenik, zure alabak hartu
eta mila zatitan birrindu arte.
Ez zenion sekula nire berri eman,
ez daki gure istorioaren berri,
ez daki gure historiaren berri,
ez daki munduari aurre bakarrik egin nahi zeniola.
Eta ez du jakin nahi.
Begiak itxiko ditu,
irakurri duena amorrazioak eragindako haluzinazio bat dela pentsatu nahian.
Eta instant horretan, txikitutako paper zatiak
hegaz hasiko dira,
noraezean galdurik.
Zerumugako bidean doazela
lehendabiziko itsaslabarretik behera erori
eta bizi berri baten bila
betirako itsaso zabalean ito arte.

Inoiz ez zion egirik esan.
Ez eta agurraren orduan.
Masail banatan musu bana
eta "laster arte" sotil bat.

Behin ere ez zuen eskutik heldu,
edo adatsa laztandu.
Ahots goxo eta hizkera leun haiekin
konformatu zen.

Ezin izan zion inoiz ilargirik hitz eman,
ozeanoetan galduriko uharte bakartirik eskaini,
edo Balendin deunaren egunean
bonboi kutxarik kurtsiena erregalatu.

Baina aski zuen elkarrekin egondako uneeekin
lapurtutako irri bakoitza garaipen bat baitzen berarentzat.

Lausengu merkea baino

hobe birao garestia.

Leialago zaio

zintzotasunari.

Iluntasunak ez dik beldurrik ematen,
bakardadeak ere ez.

Ez haiz gauero goiko solairutik datozen hotsen izu,
ez eta telebistan ikusitako azken filmaren beldur.

Gerrek ez ditek ikararik eragiten higan,
ez begirada galduak, ez irribarre pozonduek,
ez anabasak, ez ahultasunak,
ez eta aterik gabeko kaiolak...

Larderia zer den ez jakiteak soilik izutzen hau.

Faltan sentituz gero
oroituko naz zutaz,
faltan sentituz gero baino ez.
Osterantzean, danak jarraituko dau betiko lez.

Barre egingo dogu
nerabezaroko urteez,
barre egingo dogu
Besteak beste, hainbeste urduritzen gintuezen garauez.

Madarikatua alkar ezagututako lekua,
zorigaiztokoa garagar zuku epel hura
eta hamargarrenaren ostean
etorritako sasi-promesa guztiak.

Faltan sentituz gero
oroituko naz...
Faltan botaz gero baino ez.
Ordura arte ez egizu dohainiko deirik espero.

Bitartean, burla egingo deutsegu
nerabezaroan menpean hartuko gintuezela
uste zeikien sasikume danei,
keriaz begiratuko deutsegu.

Gaur ez dago aitormenik bafleetan
aspaldi dantzatu genduan azken guda dantza,
halan be, piratak izango gara
kupeleko atzeneko olatu apartsuetan.

Eta itsaslapurrak izatea galarazoten badeuskue
amets-lapurrak izateagaz konformatuko gara
iratzargailuek erreboltari ekin orduko.

Auto ilaretan
marrei segika
hutsuneei zirika
asfalto beltzetan.

Inoiz lotu ez ziren
amoranteak ziren.

Errotuladore
bati gora-behera
batetik bestera
gorri, berde, more.

Gurarik gertuen
margotu zintuen.

Lainotik lainora
salto ta irrintzi
infernuan bizi
ginen hain gustora.

Bekatuz bekatu
zer ba engainatu?

Teilatuetan oinak
zoruan burua
agurtuz negua
eginik eginak.

Otsail hareetako
hogeita hamarrerako.

Putzu lohi bateko
zapaburu artean
kilimak oinpean
ume izateko.

Agurturik trenak
eta amets denak.

Esadazu astiro
baina esadazu
irri bat hartzazu
ta eguzkira igo.

Zenbat, non, noiz arte
garenaren parte?

Erantzungailuan
mila eta bat mezu
ilargiari kexu
ozen pulpituan.

Azkeneko intxaurrak
eta azken agurrak.

Lehorreritzen gara
eguzkia oheratzen denetan;
baleak igeri dabilta zure begietan eta
itsasoak zeruari emekiro xuxurlatzen dion koordenadetan
zipriztinak isurtzen dituzte.

Eta maitasunari buruz hitz egin didazu, baina,
txinboak soilik erreparatu nahi ditut dantzan.

Hondar garauak laztantzen dituzu biolin kordak ukitzen diren otzantasunarekin.

-Begira-, esango didazu, kaio saldoa atzamar erakuslearekin seinalatuz.
Nik olatuak zenbatzen jarraitu gura nuke.

Nartzisistak gara gure baitan,
eta libre diren orrialde birjinak zikinduaz
atxilotzen ditugu berbak
gure askatasunaren truke.

Fotokopiatu gura zintuzket
berdin zintezkeen heinean
desberdin izan zaitzadan
aldioro.

Batzuetan badirudi
zerua eta infernua
pausu bakar batera daudela,
eta jendeak itxaron zerrenda amaigabeetan
izena emanda du
batetik bestera igarotzeko.

Abuztuko ekaitzak uharteak dira,
bizitzea egokitzen zaizkigun
hirietan galduriko uharteak.
Hala ere, badirudi
maiatzeko egun goxo batean
bota duzula aingura,
baleak hondartzara lez,
azken hodeiek
eguzki borobil berora
jotzen duten
maiatzeko arratsaldeetan.

Agidanez, zure ile kiribilduetatik
txori jaioberriek
burua lotsaz ateratzen dute mundu berrira;
eta asteak
ostiralez soilik osatzen dira
bizitzari
diskriminazio positiboa aplikatuz.

Zure ahotik sekula ez da
iraultza, berdintasuna, elkartasuna eta maitasuna
bezalako hitzik atera
eta, ukabil bakarra altxatu ordez,
beso biak goratzen dituzu
zabal-zabalik
gerturatzeko zaizun oro estutzeko.

Antza denez, kalefakzioek
Antartidako izotz zatiak
urtzen dituzte,
eta tanta berri bakoitza
zure azaletik behera doa.

Intentzioz beteriko mendeen ondoren
gaur gabaz,
izar iheskor bat lapurtuko diot infinituari,
jatorrian zainzuriak gordetzeko poto bat zena
altxor-kutxa bilakatuko dut.

Isiltasunak ez du galbiderik
hitz egiten hasi ezean.
Lurrikarak.
Izuaren zantzuak besterik
ez omen gaitu gogoko lantzean.

Gure baitan ostontzen garenetan
maite dugu libertatea.
Mairidireak.
Ohantze egin gabeetan,
argitan naufrago izatea.

Poesia klandestinoetako
lerro-arte enkriptatuak.
Suak.
Ahaztu promesak biharko
eta ez ditzagun garbitu eskuak.

Noski, batean ez bada, bestean;
gutxi batzuetan ukatu.
Igogailuak.
Bizirik gauden bitartean
zoriontasuna litroka zenbatu.

Isiltasunak ez duelako galbiderik
hitz egiten hasi ezean.

Irri egingo du,
irri egingo du barruak askatzeko gai denean.
Irri egingo du negar egin ondoren.

Eta jabetuko da mina eta poza
poema berean joan litezkeela.
Bere poemaz jabetuko da.

Eta ondorenean arribatuko dira
dantzak eta kantu zaharrak,
eta elkarrekin irri egingo dugu
irri egin duelako.

Bizitzak

sarri erakusten du zer den bizia:

Correosetik ailegatutako

azken notizia,

autobusean

hutsik doazen eserlekuen zenbaketa.

Tarteka,

amets egiteko egunsenti galduak.

Lizunak,

zarataka hasi nahi luketen

mutuaren hitzak.

Poste elektrikoetan pausatutako azken txoria

siku geratu zen.

Umetako kanika koloretsuak

ez ditu oroitzen itsuak,

baina, ez zaio arrazoirik falta.

Solte duzun azken botoia

arriskutsua da irudimenarentzako;

gaixotu egiten zen

zure gutunak usaintzen zituenean.

Geroztik, usaintzen ez dituen arren

gaixotzen jarraitzen du,

ez zizun jaramonik egin,

ez du zure azken botoi soltea lotu.

Aurrera joateko eta beldurrak ez zaitzala atzeratu esango dizute,
entzun diotsuena.

Baina, ez izan atzera egiteko beldur,
atzera egitea ere ausardiaren sintoma bat baino ez baita.

Dena digitalizatu den komunikazioaren aroan
sentimenduak kable bidez doaz,
ferekak, antza, pantaila baten aurrean egonez sentitzen dira,
eta maitasun kopurua GBetan neurtzen da.

Eta beharbada,
horregatik kostatzen zaigu horrenbeste
barkatu hitza ahoskatzea.
Edo begietara zuzen-zuzen begiratzea
inork biluzteko beldurrik gabe.

Martxoak 20,
iritsi da udaberria zure katilura;
jendea, ahalke,
tabernetako terrazetan batzen hasi da
tantaka.
Luzea da uda.
Sandaliak, gona motza
eta tiranteetako marradun nikia
jarri dituzu estreinakoz.

Ahaztu dituzu ama eta euria
Aitor eta hotza
Eskoziako hodeiak.
Ainhoak deitu dizu gaur,
kukua entzun omen du lehen aldiz.
Bizkorra dator txikia.
Eurocrazyak
ez du eraginik izan antza txoriengan.

Ura –minerala–
eta plater bete raba,
ordu-erdiko lasaitasuna
eta egunkari tximurtua,
ticketak ageri duenaren bikoitza
ordaindu dituzu.
Jaiki zara aulkitik.
Zerbitzariari keinu egin diozu ezkerreko begiaz
maleziaz pozondutako irribarrea eskaini bitartean.
Ez dezala gaizki ulertu.

Udaberria da eta pozik zaude
ez zaitzala ezerk izorratu.

Ez dago bide onik ala bide txarrik,
pauso zuzenak ala pauso okerrak baizik.

Badakit ez garela hondar ale bat besterik
unibertsoaren handitasunean ñimiño.

Badakit itsasoan urak handi direla
igeri egiten ez dakienarentzat.

Badakit haritzaren ezkurak haritza sortuko duela
haritzak ezkurra ernal dezan.

Badakit harria ez dela herria
baina, bai harrizko herria herri errotua dela, eta ez herri harritua.

Badakit ere, gorrotoa dela lur idorraren zuku
etsaitasunaren tanta bakoitzean.

Badakit petaloen gaineko garoak ez diola egarririk kenduko asegaitzari
hala ere, freskatuko du egarri denaren eztarri lehorra.

Badakit ekaitzak itzartuko zaituela gau bustian
maindire leunak zimurtzeko astirik gabe.

Beste behin agurtu gura ditut
beste behin egurtu nahi ditut
azken aldiz bada ere,
beste behin.

Beste behin erosketa karroetan lasterkatu
beste behin eskuak altxatu
eta sekula irabazi bakoak
ospatu.

Beste behin aski dela esan
beste behin berriz hasteko eskatu
erostetxeetako iragarkien gisan
ona, polita, merkea dela sinestatu.

Beste behin esnatzen ikusi
ametsak kaian utzi
beste behin,
azken aldiz bada ere.

Azken notiziek ez dakarte berri onik.

Etzanda igarotzen ditu orduak meta-belarren gerizpean
doinu tristeak txistu eginez.

Ostiral gauetako azken zurrutadak mozkortzen du beti,
ez lehenagokoek,
eta SOS ohar poetikoak idazten ditu
tabernako paper zapietan,
sekula ezagutuko ez duen jendeak
irakur ditzan.
Ez du salbamendu talderik espero.

Kale ilunetatik etxerako bidea hartzen duenean
patrikan dantzan dabiltzan giltzek sortutako algara
baino ez du entzuten
eta soilik sarrailaren aurrera iritsitakoan isiltzen direla
ohartzen da.

Berak ere dantza egin nahiko luke:
tangoa Argentinan,
edo twista New Orleansen.

Baina, irratiak ez du horrelakorik iragartzen.
Zaharrak berri notizia zahar berritsuetan.
Arima hozkailuan gorde du lotara orduko,
larruazala erantsi, eta
hezurretan oheratu da abuztuko beste gau bero batez.
Bihar zertaz lotsatu ez izateaz egingo du amets oheratzerakoan,
atzo eta herenegun bezala.

Abesti bat besterik ez
gitarra zahar batekin.
Lau akorde,
lau sentimendu.

Osasunaren truke
ihesi doa denbora.
Denboraren ordainetan
bizia.

Eta ezin eskuetan hartu
arnasari eutsi bitartean.

Abesti bat besterik ez
gitarra zahar batekin
berba egiteaz asperturik.

Ozenegi xuxurlatuz
errromantizismoa galdu ez eta
ondo entzun dadin.

Saiatu, saiatu berriro
begiak zarratu eta
hegaz egiten
xaboi-punpen antzera.

Edonon gaitezkeelako,
baita gutarrik erbesteenean
gitarra zahar batekin
jotako abesti bat,
besterik ez.

Ilargiak ez dio hitzik azken epaiketari buruz
denak gurutziltzatu beharko lirateke bere aburuz
ez dute esan zer gerta litekeen bihotz guztiak elkartuz
baina, irabazi genezake kantuz.

Ez zaitetz izan uniformeen beldur, maitea;
zure irribarreak zabaldu baitezake haitzuloko atea
eta indarrak batu, libratu dezagun gure izatea.
Isilik! Entzun: barreka ari da ilargi betea.

Altxa ditzagun ukabilak gora, eta gorago burua
bihar ere oinpean izan dezagun mundua
gurea eta guretzat, gugandik gurera, jarririk hitzordua
jainkoentzat gera dadin, infernua zein zerua.

Goizero arnas dezagun bart sopra geratutako kresala
eta bihotzak zimeltzen hastean azkar itxi betazala.
Ez dezagun inoiz ahaztu bizitzan ezer ez dela printzipala
eta besarkadak erein ditzagun babarrunak balira bezala.

Ispilu bat apurtzen denean
mila irudi gutxiago daude munduan:
unibertsoko punturen batean
haur bat negarrez hasten da.

Bart gauez, baratzeko lore guztiak zimeldu dira,
bart gauez,
ilargiak musu eman dienean;
lotsaturik.

Haurrak negarrari eutsi dio
loreak burumakur ikustean.
Bera baino dohakabeagorik ba omen munduan.

Ispilu zati puskatuak batu egin dira;
munduak beste mila irudi ditu.
Besteak beste,
lehen irudia musu ematen ari den ilargiarena da,
hirurehun eta laugarren irudia
hosto zabal-zabalez osatutako lorategiarena.

Begiek ez dute hitz egiteko gogorik
belarriek aharrausi asperraldian
beragatik balitz
off

Gotorleku diren eskuetara
daramatza sabeleko mapak
behatz errariak
pasahitz sekretua behin eta berriz errepikatuz
ahaztu ez dadin

Mingainak ulertuko balu
haginka egitearen plazeraz
ezpain herdoilduen barruan
nahikoa luke asea gosetzeko

Hezetasuna tantaka erortzen da sabaitik.

Egunkari horiztatu eta letra txikidun liburuz jantzirik dago mahaia.

Kea, arrantzaleen amesgaiztoa eragiten duen behe-lainoa iduri.

Garagardo hondarrez beteriko botila ondratuek inbaditutako egongelan

dihardute azkenaurreko golpea izango den azken konspirazioari azken ukituak ematen.

Dena dago prest:

Macintosh (Olivettirik ez, aurrerapenaren izenean).

(urezko) Pistolak.

(autoekoiztutako) Sentimenduak.

(semaforoan erositako) Mukizapiak.

Harreman zapuztuak (ezinezkoa da osterantzean).

Gitarra bat (trikitixarik ez).

(sorlekitik ihesi doan) Aberria.

Elkarren arteko lotura aurkitzea baino ez da falta.

Ez zaitut gauerdian iratzarriko,
egizu lo,
baina,
goizetan amets egitea ez da zilegi:
barrikadak behar dira egun argiz,
sua, kristal hautsiak.

Ez dizut esnatu behar zarenik esango,
eder zaude.
Hala ere,
banpiroekin dantzan egiteko tenorean
irteten dira trenik klandestinoenak
galdutako borroken aberrira.

Baina, egizu lo,
eder zaude.

Oroitzen zaitudanean
oroitzen ditut pagoak, orbela eta tximiniak
oroitzen ditut zelai berde zabalak
eta umeldutako begi-niniak.

Oroitzen ditudanean atzoko gabeziak
amaigabeko solasaldien truk
oroitzen naiz gizaki ororen bakardadeaz;
oroitzen ditudanean oroitzen zaitut.

Eta hitz zerrenda amaigabea osa genezake
oroimina, oroitarria, oroigarria...

Alabaina, beldur diot,
beldur bihar ezin oroitzeari.

Oroitu nahi ez izateari.

Inork ez zigun ohartarazi
horren zaila zela desberdina izatea.
nahiz eta maitatzea galarazi,
tori besarkada bat.

Hodeiez jantz gintezen agindu arren,
sasirik ez da lore artean,
eta bagara nor, izen eta abizen,
isilik egoteko.

Horizontearen zain pausatzeko ordenatu ziguten,
horregatik ekin genion ortzi-mugarako bidaiari;
eta gure pauso bakoitza ez badute entzuten,
ez da horizontea iritsi delako,
aspaldi heldu ginelako baizik.

Ez ezazu ahotsik goratu bihotza,
hitz egite hutsa aski da.
Ederra delako *bake* hitzaren hotsa
ahoskatu gabe eraikitzen denean.

Azken aldia balitz bezala
arnas hartu barruraino,
gero, irribarre egiteko:
sakon.

Diru-zorro hustua
zure azken oroitzapena izan ez zedin
“lagun” deitu nahi zintudan;
ispilu hautsien aurrean,
hozkailuak giltzapetuz
euritakontzi bat izan nahi dut
jai ondoko egunetan.

Tapaukiek begiradak bahitu dituzte,
epeldu ukimena
meatze herdoilduetan
ez baitago guretzako lekurik.

Esan nahiko zenuke
kometa koloretsu baten pare
infinitura egin nahiko zenukeela salto,
iraganera,
zure zimurrak
denboraren nozio ez balira legez.
Eguzki-loreak omen dira errudunak,
epaiketa eskubiderik gabe,
haien loaldi bakoitza
eternitatea delako guretzat.
Argazkien gibelean egiten zenuen literatura ere
gorrotatzera heldu zara denborarekin,
ez dago poesia merkerik,
ez maitasun galdurik,
ez aberri zapaldurik.
Kaietako garabien antzera
herdoildu zara oharkabean.
Hamar urte izango dira, beharbada,
azkenekoz *No time for love* abestu genuenetik.
Gaueko azken argiak ere itzaliz doaz
kale estuetatik igarotzen zarenetan.
Basaranak noiznahi bildu daitezkeen errepublikakoa zara.

Bakero zaharrak,
koadrodun alkandora gorria
egun elurtuen azken agurra,
kafe beroaren lurrina,
azken momentuan idatziriko oharrak.

Laster itzuliko naiz.

Ispiluari begira gaudelarik
ez gaitezen nekatu.

Kotoizko ametsak opari,
eta oparien zirrikitu bakoitza,
oroitzen?

Oroitzen ur-jauzi erraldoien zipriztin maitekorrekin
paperez eraikitako ilusioak?

Itxaron iezadazu esna.

Ez ezazu bilatu nire begiradarik A-8ko konpontze lanetan
eta, ez ezazu estoldetatik behera eskurik luzatu laguntasuna eskainiz.
Haurren begiak eduki nahiko nituzke mundua koloretsu ikusteko.
Edo koloretsuago.

Bazen hiri gorri bat,

Baina, zergatik konformatu bakarrarekin?

Itsutu egiten zaitu itxurakeriak,

eta gero, galipot bota berrian zure lorratzak utzi nahi dituzu;

noizbait norbait izan ginenaren testigantza.

Zure izen-abizenak alfabetoak gordetzen ditu erabateko disimuluz,

laztanek kanposantuan amaitu dute,

begirada galduak infernuan.

Pozoia dario gure arimari, errukior so egiteko animu barik.

Zainak hustu ditzagun,

ezkerraldeko garabiei elkartasuna adierazi,

gure aberri bakarra mehatze idorrak direla defendatu eta

ez dugula azken orduko albistegirik behar argitu diezaiegun.

Behinola ostu zizutena errekuperatu baino ez dugu nahi.

Dena ez da nahi genuen eran irten,
eta orain zertarako atzera begiratu?
Elur bolak jaurti genituen kafesnera
eta irribarrerik ez genuen berotu.
“Etorkizuna” deitzen diote gaur egun.

Hala ere, ordutik hona, arnasa sakon hartu
eta desagertzeko gogoak etorri zaizkit sarritan.
Eta albistegiek baino egia gehiago diote esku laztuek,
sinesteari muzin egin bagenion ere.

Kanpandorreetako ezkilak supituki gogortu ziren
ez baitzuten berri negargarri gehiagorik komunikatu nahi,
aldapak gogorrago direlako galgarik gabeko beherakadan.
Eta zergatirik izan ez arren ere,
arrazoiak asma ditzagun topa-egiteak justifikatzeko.

Goibel dago zerua
imisituz erre gurako luke lurra.
Halaber, bidea luzea eta nekeza da
helmuga zein den ez dakitenentzat,
eta kantari esnatu arren
izarrak itzali egiten dira;
banan-banan.

Etorkizuna bihar hasten bada ere,
indarge emandako pausu bakoitza
irensten du horizonteak.
Kriseiluek argi hondar bat mantentzen dute,
eskuak dira dardara egiten dutenak.
Eta zure ate aurrean babesten dira
ezkutaketara olgetan dabiltzan haurrak
goizeko lehen euri tantekin esnatu arte.

“Taupa, taupa, taupa” dio bihotzak, inozentziari deika,
iraganean bota zuelako berunezko aingura.
Legegizonetatik iheska dabiltzan bandiduek ere
ezin izan dute lapurtu esperantza,
inoizko begi distiratsuenei beha lurreratu baitziren
kartoizko dorreetan aterpe eskatu asmoz.

Lainopeko bihotz salatari
baso biluzien gauerdiko taupada,
nor zara morrontzaren lurrotan?
Territorio hezeen arrats gorri,
arima urkabeen lautada harritsuena jaurerri.
Errukitu bitez azken egunsentia orduko
dena gezurtatu zenutenen faboretan.
Nor zara zetazko zapi zuriz jantzirik?
Odol tantarik ezagutu gabeko erreka-koak,
errota zaharren gidaritzapean
garaitutako ihesaldien beldur al zara?
Lur landuaren antzutasunak itsutzen al zaitu?
Garesti gorde genituen arima galduak
bizi izukaitzen balioaz ohartzeke geundelarik.

Hirian aurkitutako lehen estoldatik behera botaz
asasinatu du bere burua telefono mugikorrak
haizearekin hartu-emanak apurtu izanaz penaturik.
Eta ADSLko militanteek komunikatu bat atera dute
protoien bizi baldintza azeleratua salatzeke.

Neoizko argiak zintzilik daude taberna gainean

une erromantikoetan, abangoardia ziren garaiko oroitzapen bat baino ez delako
Lemoiz,

eta *Nuklearrik?* galdetuko baligute gaur, beharbada onartu ere onartuko
genukeelako

(neoizko argien truke).

Ez dago modan liburu zaharren usaina,
Ez daude modan autoetako disko raiatuak.

Begira, sartu da maiatza,

zabaldu du bere betazal urdina portuan,

barka iezaiozue, ez daki zertan ari den.

Beharbada, inork ez dio esan Euskalduna jauregi elegante bat besterik ez dela
orain.

Dimisioa ematea luke hoberena.

Gure burua ere autofikzionatuko genuke une bateko protagonismoaren
mesedetan.

Ez dizuet erru osoa zuei leporatu nahi, baina, zerbait txarto egin zenuten.

Euliekin batera desagertuko zara
eta tren estazioa egunero gurutzatzean
dibisen gorabehereri erreparatuko diet,
etsairik ankerrenak baino min gehiago egingo didatelako Casio erlojuek,
eta hots ozenagoa aterako du ogi xigortuari egindako horzkada bakoitzak.
Bien bitartean, buruko gaitz berri bati izen ponpoxo bat aurkitu nahian
langabezian amaituko dute Woody Allenen psikoanalistek.

Itxaropena eduki nahi dut, patrika zulodunetan bada ere; euliekin batera agertuko
zarela esan.

'Aita, politikan sinesten duzu?' 'Bai, existitzen da'

Joseba Sarrionandia

*Nekez daki askatasun eza zer den
askatasuna zer den ez dakienak.*

98 txori kaiolaratu zituzten,
98 hitz edo mingain.
Eta zuek hala ere, zuhaitzen adarretara begira zabiltzate
loreak noiz irtengo zain.

Esan zenidan zaila zela,
ezinezkotzat jotzen zenuela hegoaldeko haizeak
iparraldekoaren mintzoa ulertzerik.

Baina orain, denok gaude kubo horren barruan sarturik,
borobiltasun arrotzetik kanpo
inoiz baino hirukiago izan nahian.

98 haiek 97 bihurtu ziren
eta egunero jausten zitzaion hosto bat
arbola heldu hari,
harik eta, hosto gabe geratu zen arte.

Eta ordurako ez ginen ez hiruki, ez borobil ez eta lauki,
ez genuen besterik nahi heptagono bat izan baino,
bere erpin zorrotz eta alde zabalekin.

Baina bai, azpia orbelez bete zedin
biluztu zitzaigun zuhaitza.
Ez, ez, ez... soineko berri baten esperoan lizundu zitzaigun.
Edo... tira! Egia esan, haurdun zegoen arbola hura,
bai, hori da! Haurdun zegoela adierazi zidan ipar-haizeak.
Eta 98 hosto bananduek, zuhaitz jaio berri bat ernal zuten,
besterik ezean, eta ezerezaren artean,
gu erditu gintuzten.

Bertolt Brehti ahaztutakoa,

Badaude egun bakar batez lan egin eta onak diren
emakumeak, beste batzuek urte betez dihardute
lanean eta hobeak dira, badaude urte luzeetan zehar
lan egin eta oso onak direnak, baina, bizitza osoan
zehar behar egin duten emakumeak ere badaude, eta
horiek dira nahitaezkoak.

New Yorkeko auzorik aberatsenetakoan bizi ziren,
aitonak hildakoan oinordekotzan utzitako etxe zuri dotorean.

Baina dena amaitzen da
iturakeriazko dotorezia horretan.

Aita beltza zen, ama, aldiz,
goitik behera eroritako burges familia baten ondorengoa.

Esperantzaz beteriko begi niniak zituen semeak, ostera,
Harry zuen izena.

Kostata heltzen ziren hile bukaerara,
gosez, ahul, beldurrez.

Harryk, egunero 25 km egiten zituen hiriko auzo apal batetako eskolara joateko,
ugaritasunez inguratuta egotetik, ezerezerako txangoa egiten zuen egunez egun,
ordu-erdiren buruan.

Egun hartan nagusitan izan nahi luketenari buruz galdegin zien andereñoak,
eta mundu perfektu bat lor zitekeen etorkizuneko aktore, polizia, bankari eta
futbol amerikarreko jokalaria haiekin.

Baina, andereñoak Harryri nagusitzerakoan izan nahi zuenari buruz itaundu
zitonean,

zera erantzun zuen ziurtasun eta konbentzimendu osoz:

-Andereño, nik nagusitan komunista izan nahi dut; bai, komunista...

Izarrak erortzen ziren gau ilunetan,
gosea merke eta ugari saltzen zen egunetan,
bertan iraun zuten.

Altzairuzko txorien kantek
eta ikararen sirenek *acappella* abestean,
bertan iraun zuten.

Basoak bizibide izatetik
ihesbide izatera igaro zirenean,
bertan iraun zuten.

Atzerria aukera izatetik aberri izatera igaro zenean,
eta sorlekua sekula baino erbesteago,
bertan iraun zuten.

Justizia nahiak kolore desberdinei garaitzean,
eta gorrotoaren zertzeladek paisaiak margotzean,
bertan iraun zuten.

Bihar,
apika,
zalantzan jarriko dute
zure amonak, bere osabak, haren bizarginak, herriko postariak...
ea benetan iraun ote zuten, eta
existitu izana bera ere ukatuko diete,
neguko zuhaitz eskeletikoen gerizpean
historiaren momenturen batean loak hartu
eta oroimenik gabe geraturiko legeek.

Fakturak, fakturak, iragarkiak, fakturak...

Gaur ere ez duzu eskutizik,
gaur ere bertan diraute 650 kilometroek.

Inoiz baino garestiagoak dira gaur autopistetako ordainsariak.

Eta hautsi nahiko zenituzke mugak eta distantziak.

Malko ugari isuri dituzu hamar urte hauetan
eta urterik urte, areagotzen doazkizu distantziak eragindako
aurpegietako ximurrak.

Udak hiriburu galduetan igarotzen dituzu,
hormigoi eta porlan artean,
urtean zehar *erokrazia* honen testigu diren kaleak
harrizko basamortu bilakatzen direnean;
gazteluko harresien bila
zu nomada galdu bat zaren bitartean.

Beste behin ere ahots urratua,
begirada galdua,
distantzia
eta
harrotasuna.

Eta kilometro amaigabeak egin ondoren
hurrengo goizean zure ohean esnatzen zarelarik
berriz ere malkoak, sufrimendua eta maitasuna.
Propagandak eta fakturak; eskutizik ez.
Baina distantzien gainerik,
autopistetatik landa,
eta udako hiri-mortuetatik at: badakizu maite zaituela...

...zuk bera maite duzun neurri berean.

Udaberri hartan gorrotoa erein arren,
maitasuna bildu zuten ordainetan.

Mendekatuko al ditugu noizbait?

Ala ahanzturan eroriko gara?

Ala, besterik gabe, bakea ezagutu eta bere lagun egingo gara.

Aseko al dira inoiz?

Ala estatu kolpe bat gutxi delakoan, mundu kolpe bat joko dute?

Ala, besterik gabe, gosez jarraituko dute.

Itoko al dira azkeneko larreak?

Ala igeri egiten ikasi, eta uharte galduren bat aurkituko ote dute?

Ala, besterik gabe, sekula ez dira galtzeke dutenaz jabetuko.

Esango al dio noizbait aski dela?

Ala albistegietako izen galduen zakuan lokartuko da?

Ala, besterik gabe, gauero, oheratu orduko, koloretako koadroak margotuko ditu bere aurpegian.

XXI. mendea ezkutuan aritzeko garaia al da?

Ala kolore anitzetako oihal zati baten atzean ostentzeko garaia ote?

Ala, besterik gabe, etxe barruan, gizartetik at maitatuko dute elkar.

Abuztua da Bilboko kaleetan,
baina, iturrietako urak ez du oporrik hartzen.
Egunkariko lehen orrialdeak
bere buruaz beste egin duen azken barraskiloaren berri eman du,
kanpai hotsek usoak ikaratzen jarraitzen dute
eta herritarrek maileguak eskatzen dituzte
gerizpeen prezio garestiak ordaintzeko.

Kale Nagusiaren erdian Bilintxen bertsoak kantatzen dituen eskaleak
ez du gaur ere diru askorik lortu,
Txirritaren bertsoekin saiatuko da agian bihar.
Hala ere, egun hauetan *korteinglesa* inoiz baino ingelesagoa da.

Semaforoa gorri dago, baina, haurrek
sokasaltoan jarraitzen dute,
eta arima aspaldi usteldutako jendea ikus daiteke
egindako bekatuak kutzazain automatikoei konfesatzen.

Oporretan, abuztuan itxita. dio kartel batek hiriaren sarreran,
baina, polizia-etxe gorrituek ez dute oporrik
eta erosketak egiten dizkiete agure elbarrituei.
Abuztuko gauak ohikoak baino ilunagoak dira,
batez ere farola hondatuen azpian,
eta inork ez ditu azken oihuak entzun.

Gari oker dago Bilbo zaharra dela esatean;
Bilbo kosmopolita delako, modernoa eta europarra.

Zergatik?

Bagarelako nor,
badugulako nola.

Leiho aurrean igarotzen zituen orduak
gardentasunetik harago
zeru zabalari begira
egutegiari sehaska doinuak abestuz
etengabeko ihesaldian.

Negarrari ekiten zion, berriz, igande gauetan,
irratia piztu
eta loak hartu orduko.

“Dena konpon liteke” zioen,
“baldin eta, munduari goxotasunez begiratzen badiogu”.
Inoiz ez zion inork jaramonik egin.

Udazken orbelak legez
erortzen dira hegazkinak.
Baina, ez da New York,
ez Kabul, ez Basora.
Eta paperez eginiko itsasontziek
ezkurak jaurtitzen dituzte
erreka ertzera.

Mutu ziren begi haiek.
Biolentzia merkea zen bere begietan,
eta biluzik ikusten zuen bere burua
ispilu aurrean jartzen zen aldiro.

Morts pour la Patrie abesten du gaur egun,
batez ere, arratsaldeko laurak igaro
eta oraindik gosez dagoenean,
Morts pour la Patrie, koilaradun soldaduak.

Egunak luzatzeari ekin dio

hari fin baten antzera.

Orain,

telefono zenbakiak memorizatzeko

denbora gehiago dugu,

denbora gehiago automobilen matrikulak buruz ikasteko,

ahateei ogi papurrak emateko,

norbere buruari eskutitzak idazteko.

Hala ere,

tai gabe gabiltza zenbat hilberri igaro diren memorian iltzatzeko.

Telefonia konpainien mozkinak

puztu egiten dira haurren koloretako puxikak baliran,

baina, askoz ere inozentzia gutxiagorekin,

eta gu, koitaduok,

inozoegiak gara ezer komunikatzeko.

Inoiz galdetu al diozue zuen buruei Bilboko metroan zer dela eta entzuten den horren kastellano gutxi?

Debekatuta ote dute hizkuntza maioritarioek bidaia?

Metroaren orde zentimetroa behar al dute hizkuntza arrotzek?

Garestiegia ordainsaria?

Lotsa?

Beldurra?

Inoiz galdetu al diozue zuen buruei Bilboko metroan zer dela eta entzuten den horren kastellano gutxi?

Nortasun agiri bakarria hau da hemen.

Hemen nortasun agiri bakarria hau da.

Hau da hemen nortasun agiri bakarria.

Nortasun agiri bakarria hemen hau da.

Hemen hau da nortasun agiri bakarria.

Ez daitezela tribuaren azken hitzak izan.

Munduaren akabera desio dugun egunetan
konturatzen gara zeinen tragikoak diren
liburu piloetatik erortzen diren hauts maluten bizitzak.
Hiri bakoitzak du bere Dublin propioa,
egun grisak eta garagardo ustelduaren usaina...
Sindikatuak ere burutu du bere azken asanblada
eta tabernak goizaldera arte zabalik egon daitezen borrokatuko da proletalgoa.
Euliak simaurrera legez
gerturatzen dira gizon-emakumeak erakusleihoetara
azken tendentziako plasmadun telebistak liluraturik,
Nerbioi ibaiaren izena ilegalegia dela salatzen diharduen
kazetariaren azken hitzak entzunez.
Iluntzean, eguzkia oraindik ere guztiz sartu ez denean,
bakardadeari adausi egiten ari diren bizkarrezur abandonatuz betetzen dira
lokutorioak.
Egun horietako kaleak dira babesleku egokiena sekretuentzat,
eta etxeak familia eredugarritz betetzen dira astiro-astiro:
Teleberria ikusten dutelarik asaldatu egiten dira euren buruen protagonismo
gabeziaz.
Gainera, oraindik ezin dut ulertu zer dela eta ez dioten literatura Nobel saria
Marxi eta Engelsi eman, *post mortem* bada ere.
Horrelakoak dira egunak munduaren lagin honetan,
egia bakoitzak hotzikara bat sortzen duen ringean,
egunsentiari autobus geltokietan itxaroten zaion aldean.
Poetarik handienek
ukatu egingo dute tabernetako komunetako ateetan poesia egiten denik,
“Apologia da, apologia hutsa”, esango dute.
Purutasunean itotzen ote gabilta?

Baina, nik ere modu berean igorri nahi nituzke gorrotoa zein maitasuna.

Hain geuretarrak gara munduaren alde honetan...

Batzuetan bereber izan nahi nuke, estralurtar besteetan,

nire izateaz nazkaturik,

edo nire izateari agidanean dagokionarekin akiturik.

Horrenbeste baimen behar dira garena izateko.

Olatu galduak baino ez dira goizeko lehen orduak,

baina, itsasargirik ezean,

bart gaueko kafe indargabetuarekin konformatzen dira,

hezurretatik loreak noiz irtengo zain.

Arrazoia ere usu eman diete etxeko zapatilei,

baina, berandu da,

bala batek gurutzegramako laukitxo guztiak bortxatu dituelako.

Eta argi gorritz jantzitako portuetan

marinel zaharrak begiztatu daitezke habanerak kantatzen,

maitasuna garestiegia delako urteen joanean.

Alferrik dira malkoak guardasolen aberrian,

eta erreumak jotako agureak

paretean pintadak egiten dabilta karmin gorriarekin:

Agure bat, hortzorde bat.

Eta eguzkia esnatzearekin batera

sobera daude hitzak kale kantoietan,

ispiluko lurrin metatuan

ez baita mezu kodifikaturik agertzen.

ASKAtASunA prAKtiKAN jArri behArrA bA-dA demoKrAziAren truKe ordAindu
behArreKo SAIneurriA,

ASKAtASunAren AIA demoKrAziAren AldeKo hAutuA egin beArKo
genuKe??????????

Suak
askatzen gaitu.
Txingarrak
arnas dira.
Ez gara
belaunikatuko
hizkuntza arrotzez
mintzatzen direnen
aurrean.

Heresiaz
akusatu gaituzte.
Ez dugu
ukatu.
Hereje gara
gauerdiko bazkan.

Gu
erre asmoz
badabiltza ere,
suak
gu
askatzen gaitu
ilargi betearen
argitan.
Hereje gara
bortxazko hierarkien
aitzinean.
Hereje izan
nahi dugu
azken erresistentzian.

Hereje gara
heresiaz, Zugarramurdietan,
Sugar Herrian.

Izarrek anpulu antza daukie
Sanjuan gabeko zeru aratzeko
azal ilunean irristatzen.

Aiene hotsak heltzen dira
baso zaurituetatik barrena
gabarik motzena be luzea da.

Gernikari lapurtutako kriseilua
isiotuko dogu bitartean
zuon begiek bidea argitu arte.

Barrura begiraten zuen noizbehinka,
ispiluak erakusten ziona gustuko ez zuenean.
Burugogorkeriari bertute deitzen zionean
arnasten zuen sakonen.

Iseka egiten zion munduari
borobilegia zelako
eta deskantsu hartzera
inoiz ausartu ez zelako.

Eta maiatz honetan ere
ez dugu ispiluak erakusten duena gustuko
eta gure barnean begira darraigu
inork ez duelako so egingo gure partez.

Eta, zuei gustatu ala ez,
bizirik jarraitzen dugu.

Euskal Enpresa,
Anonimorik gabeko
Sozietate Limitatua.

Hitzak baino ez,
antzuak, mingarriak,
pozonduak, ederrak.

Makiek ezin izan zuten berez argaldu,
eta erregimenak garaitu zien.

Donald ahatearekin
kale izkinako McDonald'sean batu zirenetik
ez dute neurriko prakarik aurkitzen.

Hitzak baino ez
laburrak, luzeak,
akatsez beteak.

Disko-piratetan daude
azken manifestuak,
pirata disekatuek
garezurdun bandera gorria
noiz atera zain.

Denda txinatarretan
arimaren eta moralaren
kopiak saltzen dituzte euro batera
Txanogorritxok begiak
itxita dituen bitartean.

Hitzak baino ez,
aditzak, izenak
publikoak eta pribatuak.

Mahoizko prakak Levi's markakoengatik
ordezkatu dituzte maoistek,
eta zapatistek kiroletako oinetako garestiak
dituzte gogokoen.

Hitzak,
hitzak baino ez.

Ez zizuten denboraren nozioa galdu ote zenuen galdetu
musika jartzen zizuten zure egoera mentala jipoitu zezan
ondoren, zigarreta paketeak bata bestearen ostean erreaz
barre egiten zizuten, erraiak lasai ez dituenaren algara dorpearekin.

Egun hodeitsuetan ekaitzaren beldur izaten zinen
leihotik sartutako argiek zure siluetaren gerizpea islatzen zutelako paretan;
orduan, *Ezin dut gehiago* eta *lagundu* bezalako hitzak dantzan jartzen zenituen
elkarrekin.

Izutu egiten zintuen laborategietako arratoi zurien antza hartzen zenbiltzala
pentsatzeak,

gertu zeunden lotura guztiak karraskatzeko.

Baina, egutegiak geroz eta egun gutxiago zituen, eta zuk, geroz eta antsietate
gehiago.

Memoria ezabatu nahi zizuten,

akordu naiz *Milan* markako borragoma batek ezabatu zizula lehen silaba:

moria.

Ordutik aurrera, negar egitea zer zen ahaztu zitzaizun,

lau hankatan ibiltzen ahantzi zenuen,

eta ez zinen soinurik primitiboenak ere ahoskatzeko gai.

Ez zaitut estutu nahi, laztana, baina, nor zara?

“Erre existentzia armatua
erresistente armatuena baldin bada”,
dio erresistentzia armatuen existentzia
arbuiatzen duen ahots erresuminez armatuak.
Bitartean barraskilo bat zapaldu du,
oskola defendatzen ari dela.
Armak, erresistentzia eta existentzia bera ere
galdu ditu barraskiloak.

Trapuak

bandera beltzak

neguko edalontzietan.

Mapa baten lau ertzak

euripetan.

Agenda

hutsen egunak

kitatu gabeko zorrak

ugertutako lumak

golpeak, borrak.

Ametsak

ameslariak

eta amestu bakoak

bakoitzaren erdiak

beti osoak.

Desio idorretako
bide kamutsetatik
arnasestuka oihukatu genuen.

Ardoa mikaztu orduko
buelatu zintezten
kareharrizko dunen aldapak igoz.

Norbere ohea baita
norberaren oroimen
esperantza zenbakietan kontatzean.

Hala irakatsi ziguten eta hala sinetsi genuen.
Amestu genuen.

Lerro hauetan ez duzue irakurri nahi zenuketen ezer irakurriko;
eta, irakurri gura zenuen hura irakurri baduzue, ez duzue fisik ulertu.

“... zeren bertsio ofizial faltsuen erresuma da historia..”

Hertzainak